


Esploradore linguistikoa

Euskara galtzen ari zen Nafarroako tokietan inkestak egin zituen Koldo Artolak. Urteetako lana publikatu dio Aranzadik: 'Ziorditik Uztarrozeraino. Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa oinarri»

FELIX IBARGUTXI | DONOSTIA. 23 diciembre 2014 09:10



Koldo Artola, duela gutxi Donostiako Easo Plazan. / MICHELENA

Nolako euskara egiten zuen adineko jendeak orain dela 30-40 urte Nafarroako hizkuntz mugan, hau da, euskara galtzeko arriskuan zegoen parajeetan, adibidez Ziordian, Bakaikun, Iruñeko iparraldean (Makirriain, Anoz, Gaskuen), Zubiri aldean, Aezkoan, Zaraitzuko ibarrean, Erronkarin? Koldo Artola han ibili zen, hainbat herri korritu zuen, galderak eta galderak eginez, Marcel Cohenen inkesta oinarri hartuta. Orain, euskaldun haien erantzunak hiru tomotan eman ditu argitara Aranzadi zientzia-elkarteak, izenburu honen pean: 'Ziorditik Uztarreraino. Nafarroan, euskararen hegoaldeko mugetan barrena, 1983an'.

Azaleko argazkian Antonia Anaut ageri da, erronkarieraz egiten zuen azken hiztunetako bat -bera eta Sotera Ederra izan ziren azkenak-. 1974ko argazki hura Izaban egina dago, Idoien Festa hastear zela, eta Antoniaren ondoan Idoia Artola neskatila dago, Koldo Artolaren lehen alaba.

Bi alditan, bi ekinlditan egin zituen inkestak Artolak, batzuk 1977-86 epean, besteak 1995-2000an. Eta zergatik izenburuko data hori, 1983? Hona hemen Artolaren azalpena, hitzaurretik hartua: «1983 izan da aukeratu dugun urtea, orduan bizirik baitzeuden hemen agertzen diren informatzaileak oro».

«Jose Estrornesen 'Erronkariko uskara' liburua ezagutu eta barne-zirrara sentitu nuen»

Koldo Artola Donostian jaiotakoa da eta bertan bizi izan da beti. Orain 76 urte ditu. Honela hasi zen euskararen inguruko langintza honetan: «60ko hamarkadan, lagun batzuek Donostia Mendi Taldea sortu genuen, hura kamuflajea zen, gure asmoa kulturala zen. Halako batean, norbaitek Jose Bonaparteren mapa ekarri zigun, euskalkiak agertzen zituen mapa. Beste batean, Jose Estrornesen 'Erronkari-ko uskara' ezagutu eta barne-zirrara sentitu nuen. Hasi nintzen gehiago irakurtzen, eta bidaiak egiten.

«Behin, Abaurrepean, emakume batek atea itxi zidan. Urte batzuk geroago, atea jo eta berriz ere itxi»

Erronkari aldera, eta hiztun batzuk bazeuden oraindik. 1965-66ko kontuak esaten ari naiz».

Artola erabateko autodidakta dugu. Aurrezki Kutxa Munizipalean hasi zen lanean, aurrena botones moduan,

gero poliki-poliki gora egin zuelarik lanpostuan.

1970ean ezkondu zen Koldo, Iruñeko emamuke batekin, Mari Puy izenekoa. Hari eta haren gurasoei dago eskainia oraingo emaitza, izan ere Iruñeko etxe hura askotan izan zuen tranpolina gero Erronkarira joateko. Ezkondu ostean, Koldo eta Mari Puy hasi ziren udako egun batzuk Erronkarin pasatzen. «Jakin nuen Katalingarde izeneko etxean euskaldun bat bizi zela, Antonia Anaut. Esan ziguten gorreriak jota zegoela, baina hala ere animatu nintzen bisita batzuk egitera. Galderak paper batean idazten nituen, euskal hitzak erdal grafian ipinita, harentzat errazago izan zedin», esan du Artolak.

70eko hamarkadan bisita gehiago egin zituen Erronkarira, eta lehen lanak publikatzen hasi. Artikulu haiek Nafarroako Foru Aldundiaren aldizkari batean eman zituen argitara, 'Fontes Linguae Vasconum' delakoan. Lau artikulu publikatu zituen erronkarierari buruz, eta gero beste hamar Zaraitzuko euskarari buruzkoak. Azken urteotan Artzibarreko mintzairaz publikatu ditu zenbait lan, eta harro dago: «Iñaki Camino hizkuntzalariak esan dit neuri esker ezagutzen duela bailara horretako hizkera». Badira urte batzuk lanak seme Xabierrek zuzentzen dizkiola, Euskal Filologian lizentziaduna baita.

Erronkari eta Zaraitzuko herrietan hasi zen inkestak egiten, eta gero proiektu zabalago bati ekin zion: Nafarroako euskararen hegoaldeko mugako hiztunen bila hasi zen, Aranzadi elkarteko Fermin Leizaolak bultz eginda. «Konprobatu nahi nuen zertan zen Bonaparte printzearen mapak zioena; hala al zen, alegia, mapan euskalduntzat hartutako herriek euskaldun izaten jarraitzen al zuten». Armak, berriz, papera, boligrafoa eta Philips markako grabagailua. Orain, grabazio haiek entzun daitezke Aranzadi elkarteak liburuekin batera plazaratutako CDan.

Gero, 1983an, inkestatzaile-lana eten zuen, Pedro Yrizarri laguntzen hasteko. «Hura aspalditik ari zen euskal aditza -forma guztiak- biltzen eta publikatzen. Idatzi nion, laguntza eskainiz Nafarroako aditza osatzeko, eta segituan erantzun zidan, mesedez lehenbailehen hasteko. Halaxe, beste lan hau aparkatuta utzi nuen hamalau urtez».

Makina bat etxetan jo du aldaba Artolak. Eta ia beti harrera ona egin izan diote. «Behin, Abaurrepean, jo nuen atea etxe batean eta emakume edadetu bat atera zitzaidan. Hizketan hasi nintzaion eta zertara etorria nintzen entzun orduko atea itxi zidan. Beste urte batean berriro egin nuen aproba. 'Egun txar bat izango zuen orduan', pentsatu nuen, baina bigarren ekinaldian gauza bera egin zidan», adierazi du ikerlariak.

Iñaki Camino hizkuntzalariak egin duen hitzaurrean antzeko beste kasu batzuk irakur daitezke, Koldok berari kontatuak, jakina: «[Koldori gertatu zaio]Gaskuera euskal datuen bila joan eta etxera sartzera utzi ez duen emazteki euskaldun horrek berak San Urbanoren ermitako erromeriaz galdezka doazen ikertzaile erdaldunak etxean hartzen ikustea».